

TXOMIN LETAMENDI – TORTURA ETA ERAILKETAREN BIKTIMA

Txomin Letamendi Polizia Franskistek hil zuten, 1950eko abenduaren 20ean. Eragindako tortura fisiko eta mental larrien ondorioz hil zen, baita espetxe baldintza penagarriengatik ere. Espainiako Memoria Demokratikoaren Legeak arautzen duen bezala, gizateriaren aurkako krimenak preskribaezinak eta amnistiaezinak dira, eta beraz, Letamendiren familiak, GEBehatokiarekin elkarlanean, Donostiako Auzitegian kereila kriminala aurkeztu du.

Letamendi Bilbon jaio zen, 1901ean, EAJan militatu zuen, eta ofizioz musikaria zen. Karakasen erbesteratu zen, eta ondoren, euskal informazio zerbitzuetan parte hartu zuen, atxilotu, torturatu eta hil zuten arte.

Donostiako epaitegiak Memoria Demokratikoaren Legearen bidetik jo du, familiaren eskaera onartuz eta Letamendiri egindako torturen ustezko bi erantzuleen aurkako ikerketa irekiz. Horretarako, bi polizia frankistak identifikatzeko beharrezko izapideak egiteko eskatu dio Polizia Judizialeko Probintzia Brigadari. Brigada hori Espainiako Poliziaren Gipuzkoako Polizia-etxearen mendekoa da, eta epaitegiari honako hau jakinarazi dio: poliziaren datu-baseetan egindako kontsulten arabera, Fernando Escudero Arcocha "Erregistroan 2013/05/07an inskribatu zenean hil zen". José Nogues Recoori dagokionez, polizia-txostenak adierazten du ezin duela bere filiazioa besterik zehaztu, "ez baitago informazio gehiago".

GEBehatokian uste dugu mugarri bat dela epaitegiak arrakala bat ireki izana epaitegietako bunker negazionistan, eta, Amnistia Legean oinarritu gabe, Txomin Letamendi EAJko militantea torturatzen eta hiltzen saiatu zirenei eta haien erantzukizunei buruzko ikerketa hastea. Are gehiago, auto horren bigarren aurrekariaren garrantzia azpimarratu nahi dugu; izan ere, epailearen ustez, "eginbideak egin dira egitateen izaera eta inguruabarrak zehazteko".

GEBehatokiaren inizatibarekin, Letamendiri dagokion aitortza emateko, Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren 9/2023 legeak jasotzen duen errekonozimendu eta erreparaziorako mekanismora jo da.

2025ean aipatutako legeak eskaintzen duen aitortza jaso du, Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren legean oinarrituta. Gogora Memoria, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutaren bitartez izan da. Bere omenez bi ekimen instituzional egin dira. Bata Ondarroan eta bestea Bilbon. Azken honetan Lehendakarian parte hartu zuen, adieraziz Jaurlaritzaren ardura dela "biktimak erdigunean jartzea eta egiaren, justiziaren eta erreparazioaren bidean sakontzea".